

SUSTRAIETATIK ERALDATUZ

HAUR
LITERATURA
BERDINTASUNAREN
ALDEKO
ALIATU



IPUINEN GIDA



AURKIBIDEA

4 HITZAURREA

6 KOKAPENA

LIBURUEN KATALOGOA

7 LEHEN URRATSAK

12 AURRE IRAKURLEAK

13 IRAKURLEAK

20 JAKINTZAK

21 GAZTEAK

24 EUSKARAZ EZ DAUDEN
EZINBESTEKOAK

-  LEHEN URRATSAK
-  AURRE IRAKURLEAK
-  IRAKURLEAK
-  JAKINTZAK
-  GAZTEAK

Ipuin

ak
ERREALITATETIK FANTASIARA
JAUZI EGITEKO HEGAZKINAK
DIRA. MUNDU BERRIETARA
ERAMATEN GAITUZTE;
BAINA, NORBERE BARRURA
BEGIRATZEKO AUKERA EMATEN
DIGUTE ERE. HITZEN BIDEZ,
EGUNEROKOAN ETEN BAT
EGIN, ETA GUREKIN LOTZEKO
AUKERA DIRA IPUINAK.

Bizitza osoan dira beharrezko halako bi-daiatxoak, baina are garrantzitsuagoak dira haurtzaroen. Gurasoekin lotura afektiboa eraikitzekeo tresna aproposak izaten dira ipuinak, iluntzean, loaren aurretik bularretik ipuinetara egiten dute salto gure haurtxoek. Giro berezia sortzen da guraso eta umearen artean ohearen goxotasunaren bueltan. Hasieran disfrutatzekeo eta agurtzekeo momentua dena, gai potoloak lantzekeo aukera bihurtzen da ondoren. Lantzekeo errazak ez diren gaiez aritzeko abagunea bihurtzen baitira ipuinak. Nola sortzen gara? Heriotza, sexualitatea ... tabu izan ohi diren gaiak ederragoak dira ilustrazio eta hitzak biltzen dituen ipuinean.

Eskolan ere baliabide ezin aproposagoa da ipuina. Izan ere, berebiziko garrantzia dute ipuinek haurren garapenean. Bizitza beraren leioa da ipuina. Ipuinetan aurkitzen dituzte askotan oraindik ezagutu ez dituzten errealitateak. Orro egiten duten lehoiak edo lepo luze luzea duten jirafak deskubritzen dituzte haurrek ipuinen bidez.

Ipuina, baina, ispilua da ere. Urrutira joan beharrean, bertan geratu eta barrura begirako bidaia egiten du irakurleak. Amorrua

zer den erakusten digute ipuinek, bai eta tristura, beldurra edota bakardadea ere. Pertsonaiaren sentimenduak norberak borborka dituen bizipenen antzekoak direla ikusiko du haurrak, eta beraz, hala sentitzea arrunta dela ondorioztatuko du.

Sentimenduak identifikatu eta hauekin nola jokatu ikasiko du pertsonaiaren eskutik hartuta. Ipuinen bitartez beraz, eguneroko bizitzari aurre egitekeo erremintak eskuratzen ditu umeak.

Gure barrua islatzen duen bezala, inguratzen gaituen gizartearen ispilu ere dira ipuinak. Gure jendartearen balioak, jarrerak eta ezagutzak aurkitzen ditugu maiz lerro artean. Eta tamalez, dezente dira ipuinetan betikotu beharko ez ziren ereduak. Ipuinek irudimena eta jakin mina pizten dituztela argi dago; zoritxarrez, ordea, hain egokiak ez diren balio eta jarrerak erreproduzitzen eta mantentzen laguntzen duten tresnak ere badira.

IBAI MAKINISTA, PILOTU, SUHILTZAI-LE EDOTA MEDIKU LANETAN AURKITU DUGU. KATTALINEK, BAINA, EZ DITU LANBIDE GUZTIEN ATEAK ZABALIK AURKITU.

Zaintzari lotutako lanen gehiengoa amek edota amonek eramaten dute sorbalda gainean eta oso gutxitan, gutxiegitan, aurkitzen ditugu familia eredu tradizionalari ihes egiten dion eredurik. Eta noski, ipuinez ipuin osatzen goazen sokak haurraren imaginario kolektiboa lotzen du.

Haur literaturan genero ikuspegia txertatzearen beharra eta garrantzia mahai gainean ipini nahi dugu. Haurrei zuzendutako ipuinak eta generoa harilkatuz, berdintasunean oinarri duen jendartea estu lotuko dugunaren uste osoz.

Jakitun gara, gure herri txikia inguratzen duten bestelako kulturek aurrerapauso itzelak eman dituztela haur literaturan genero ikuspegia txertatzeko bidean, gidan dauden liburu gehienak euskaraz daude. Ez da erraza izan, euskarazko ipuinen gida hau egitea, baina, aldi berean, aldarri bat izan nahi du. Gure haur literaturak generoaren bidea ibil dezan ahaleginak egin behar dira; batetik dagoena euskaratuz eta bestetik, sormenari atek irekiz. Premia nabaria da, orain borondatea da behar dena.



ZER AUKITUKO DUZU GIDA HONETAN

Gida honetan aurkituko dituzun ipuin eta liburuek berdintasunean, autonomian, dibertsitatean, errespetuan eta askatasunean euskaraz hezteko lanean lagungarri izan nahi dute. Finean, hezkidetza oinarri duten eta euskaraz idatziak, edo euskarara itzuliak izan diren ipuinak bildu nahi izan ditugu. Lan hau egin ahal izateko Katakarak liburu-denda eta editorialaren ezinbesteko laguntza izan dugu.

Proposatutako ipuinen artean hamaika gai aurki daitezke: emakumeek historian egin duten ekarpena ikustarazteko ipuinak, maskulinitate berriak, genero indarkeriari aurre hartzeko proposamenak, homofobiaren aurkakoak, heziketa afektibo sexuala sustatzeko materialak, autoestimua lantzeko ipuinak, emozioak ezagutzeko lagungarri direnak, familia aniztasuna agertzeko bildumak... Gidan dauden ipuinak gai potoloak lantzeko aukera ematen badute ere, literatura lagun, haur eta umeei erakargarriak diren ipuinak izatea lehenetsi dugu.

2020ak utzitako berrikuntza gehienak jasok daude, baina badira aspaldi idatzitako eta oraindik oso kuttunak diren ipuin eta liburuak. Argitaletxe txikiak eta material zainduak izatea lehenetsi dugu eta hori bai, bertan dauden liburu guztiak eskuragarri daude une honetan.

Liburuak multzo ezberdinetan sailkatu ditugu: lehen urratsak, aurre-irakurleak, irakurleak, jakintzak eta gazteak. Jakin badakigu liburu gehienak gomendatutako adinen arabera sailkatuak daudela, haatik, adinarekin baina gaitasunekin dago lotuta irakurketa eta beraz, gida honek erritmo ezberdin horiei egin nahi die leku.

Gida amaieran, ordea, azken sail bat aurkituko duzu: Euskaraz oraindik ez dauden ezinbestekoak. Hezkidetza oinarri duen haur literatura sustatzea ezinbestekoa eta horretarako ahaleginak egin behar dira. Hemendik gure aldarrikapen txikia egin nahi dugu, hemen dauden lan hauek euskaratzeko eskaria luzatuz.

LEHEN URRATSAK



MUNSTRO ARROSA

EGILEA:
OLGA DE DIOS
ILUSTRATZAILEA:
OLGA DE DIOS
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Aniztasuna gure jendartea aberasten duen elementu gisa azaldua. Munstro arrosa askatasun oihua.



NIK ERE NAHIKO NUKE MANGO BAT

EGILEA:
AITZIBER ALONSO eta
MIREN JUARISTI
ILUSTRATZAILEA:
AITZIBER ALONSO
ARGITALETXEA:
CENLIT EDICIONES
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Teandra eta Luisinho izeneko aitona-amona zahar-zaharrak Brasilen bizi dira. Teandra handi-handia da, eta Luisinho, berriz, txiki-txikia. Luisinho zuri-zuria da, eta Teandra, aldiz, beltz-beltza.



BIHOTZAK DUN- DUN

EGILEA: MIREN AGUR MEABE
ILUSTRATZAILEA:
ENRIQUE MORENTE LUQUE
ARGIALETXEA: ELKAR
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Learen aita langabezia geratu, eta goiko Ixidro zaharra zaintzen hasi da. Neskatxoak harreman hori, eskolako gorabeherak, familiako kontuak, lagunen arteko abenturak eta abar kontatuko dizkigu, baita noizean behin izaten dituen bidaia horietan amets bera izaten du beti: oraindik zein den ez dakien lore bat topatu beharra. Urtaroen haritik eta hainbat testu mota erabiliz gutunak, poemak, igarkizunak, kankak ume sentibera baten eguneroko bizimodu kontatu digu Miren Agur Meabek.



KOLORETAKO MUNSTROA

EGILEA: ANNA LLENAS
ILUSTRATZAILEA:
ANNA LLENAS
ARGIALETXEA:
FLAMBOYANT EDITORIAL
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Koloretako munstroak ez daki zer gertatzen zaion. Emozioekin nahastu egin da, eta orain nahasmena desegin behar du. Istorio erraz eta dibertigarria, haurrak eta helduak emozioen hizkuntza liluragarrian sartuko dituena.




ARROSA ETA LEUNA

EGILEA: ADELA TURPIN
ILUSTRATZAILEA:
NELLA BOSNIA
ARGIALETXEA:
PAMIELA
GAIA: BERDINTASUNA

LABURPENA:

Lortegi batean itxirik bizi dira elefante-kume emeak. Paskualina da haietako bat, baina, besteek ez bezala, ez du lortzen bere azala arrosa eta leuna izatea. Aitak eta amak, etsiturik, itxura hori izatera behartzen ez dutenean, Paskualina askatasuna zer den ohartuko da, eta berdintasunerako bidea irekiko die bere lagunei. "Neskatoen alde" bilduma mitikoko ipuina. Istorioa, alegia baten bidez kontatua baliabide ederra da emakumeak gizartean duen rolaz hausnartzeko. Gogor egiten die estereotipo sexistei, eta bazterkeria salatzen.



TXIMELETA-BELARRIAK

EGILEA: LUISA AGUILAR
ILUSTRATZAILEA:
ANDRE NEVES
ARGIALETXEA:
PAMIELA
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

-Maddi, belarri-handi!
-Ama, zuk uste duzu belarri handi eta zabalak ditudala?
-Ez, alaba. Zuk tximeleta-belarriak dituzu.
-Bai, baina, nolakoak dira tximeleta-belarriak?
-Belarri bereziak dira, buruan tximeletak bezala hegaka ibili, eta gauza itsusiak mila kolorez margotzen dituztenak.



ZORIONEKO HONDAMENDIA

EGILEA: ADELA TURIN
ILUSTRATZAILEA:
NELLA BOSNIA
ARGIALETXEA: PAMIELA
GAIA: BERDINTASUNA

LABURPENA:

Hondamendiak dena hankaz gora jarriko du: etxerik gabe geldituko dira, baina, gainera, bizimodu erabat aldatuko die. Sagueta andreak aurkituko du konponbidea. Bizimodu aspergarria zuten, baina, orain, abenturak, baita rol berriak ere familian.

"Neskatoen alde" bilduma mitikoko ipuina. Istorioa, alegia baten bidez kontatua baliabide ederra da emakumeak gizartean duen rolaz hausnartzeko. Gogor egiten die estereotipo sexistei, eta bazterkeria salatzen.




ARTURO ETA KLEMENTINA

EGILEA: ADELA TURIN
ILUSTRATZAILEA:
NELLA BOSNIA
ARGIALETXEA: PAMIELA
GAIA: BERDINTASUNA

LABURPENA:

Udaberriko egun eder batean, bi dortoka gazte eta ederrek, Arturok eta Klementinak, elkar eza-gutu zuten aintzira baten bazterrean. Eta, arrats hartan bertan, ezkontzea erabaki zuten...

"Neskatoen alde" bilduma mitikoko ipuina. Istorioa, alegia baten bidez kontatua baliabide ederra da emakumeak gizartean duen rolaz hausnartzeko. Gogor egiten die estereotipo sexistei, eta bazterkeria salatzen.



HAMAR HATZ TTPI ETA HAMAR BEHATZ TTPI

EGILEA: MEM FOX
ILUSTRATZAILEA:
HELEN OXENBURY
ARGIALETXEA:
PAMIELA
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAINZA

LABURPENA:

Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi liburu irudidun goxoa da, oraindik irakurtzen ez dakitenei eta irakurle hasi berriei zuzendua. Testu errimadun erraza du, egitura errepikakorra eta metatuz doazen esapideak. Munduko hainbat bazterretan sortutako haurrak erakusten dizkigu, elkarren arteko berdintasuna azpimarratuz: hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi.



MUNDUKO KARRAMARRORIK ERTAINENA

EGILEA: UXUE ALBERDI
ESTIBARITZ
ILUSTRATZAILEA:
RUTH JUAN DEL ROSAL
ARGIALETXEA: BEGIKO
GAIA:
ERREFERENTE BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Karramarro harro asko dago arroketan. Itsasberheran agertzen dira gehienak. Eguzkitara jartzen dira, disimuluan elkarri begira. GARRO karramarroa ere tartean da, bere lekua hartu gurarik, bere izaera aldarrikatu nahian.



MALKOAK

EGILEA:
SIBYLLE DELACROIX
ILUSTRATZAILEA:
SIBYLLE DELACROIX
ARGITALETXEA:
TTARTALO
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Batzuetan, bihotzean zauriak ditugunean, begiek gainezka egin eta negarrez hasten gara. Edonork egin dezake negar... neskek, mutilek. Helduek ere egiten dute negar, noizean behin. Negar egiteak barrua garbitu egiten duela erakusten duen album soila bezain dotorea.



AKNA, LURRALDE IZOZTUKO ARRANTZALEAK

EGILEA:
PEIO LOPEZ-ITURRI
ILUSTRATZAILEA:
IRATI MERINO
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Kanadako Inuiten lurraldean kokatu dago istorioa, duela mende gutxi batzuk, Europako baleontziak haraino iristen zireneko garaian. Haurrak dira aurkezten dugun istorioaren protagonistak. Batez ere, haur horietako bat, Akna izeneko neska Inuita.



HAMAIKA ANDERE AUSART

EGILEA:
XOSÉ MANUEL GONZÁLEZ
ILUSTRATZAILEA:
HELLE THOMASSEN
ARGITALETXEA: PAMIELA
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Andere ausart hauek mundu guztian barnako ibilbidea egiten dute, eta, abentura bakoitzean, haietako bat desagertuko da. Hamaika andere ausart ipuina herrialde guztietan bizirik dauden herri errimen egituraz baliatzen da antzinako errima gaurkotzeko eta tradizio hori irakurle gazteenei hurbiltzeko. Fantasiako ipuin bat da horretarako baliabidea, toki geografiko eta kultura desberdinak alegia.



JONEK JONE IZAN NAHI DU

EGILEA: DANI
MARTIRENA
ILUSTRATZAILEA:
ANA IBAÑEZ
ARGITALETXEA:
AUTO-EKOIZPENA
GAIA:
TRANSEXUALITATEA

LABURPENA:

Irakurtzeko eta jolasteko proposamen honetan, akordeoi baten gisa testua eta imajinak aurkezten dira. Tolesdura bakoitzean kartoi kaxa bat dugu, goiko aldean testua eta kaxa barruan irudia osatzen duten elementuak. Liburuan zehar Jonek handitzean kotxe gidaria izan nahi duela ikuskiko dugu, abioneta pilotu, marinel... "Baina handi izatera iritsi gabe, amets bat du bihotza beteta. Jon neska da, txiki txikitatik, oinutsik edo jantzita txaketa".



TITIRIMARI

EGILEA: MAURIZIO A.C. QUARELLO eta XERARDO QUINTIÁ
ILUSTRATZAILEA:
MAURICIO A.C. QUARELLO
ARGITALETXEA:
TXALAPARTA
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Atzobezperako erreinuan bizi da Titirimari. Haren amak, Mandolina erreginak, nahiko luke printzesak andereño manierak izan ditzan eta ongi ezkondu dadin. Baina alabak ez ditu amaren amets berak, eta bereak bizi nahi ditu: erreinutik alde egiten du, eta abentura zoragarriak biziko ditu, bidean aurkitzen dituen muntrotro, hitz asmatzaile eta beste izaki batzuekin. Ezpain gozoko beste printzesa bat ere ezagutuko du...



ERNESTO ETA ZELESTINA, SIMEON GALDU DA

EGILEA:
GABRIELLE VINCENT
ILUSTRATZAILEA:
GABRIELLE VINCENT
ARGITALETXEA:
PAMIELA
GAIA: LASAITASUNA ETA ZAINZA

LABURPENA:

Zelako atsekabea hartzen duen Zelestinak bere panpin kuttuna galtzean! Ernestok, zorionez, irtenbide polita aurkituko dio arazoari, bai Zelestinarentzat bai eta basoan bizi diren beste animalientzat. Horretarako daude benetako adiskideak!




TXORI HORIA

EGILEA:
OLGA DE DIOS
ILUSTRATZAILEA:
OLGA DE DIOS
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAINZA

LABURPENA:

Partekatzeak duen balioari buruzko ipuina. Txori horiak bizi garen planeta zaintzera eta guztion ongiagatik gure ideiak libreki zabaltzera gonbidatzen gaitu.



AMONATXOAK

EGILEA(K):
CHARO PITA VILLARES
FATIMA ALONSO
ILUSTRATZAILEA:
FATIMA ALONSO
ARGITALETXEA:
TXALAPARTA
GAIA:
ERREFERENTE BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Baziren behin elkarrekin bizi ziren bi amonatxo: Antea eta Filipa. Egun batean, Anteak babarrun bat aurkitu zuen sukaldean baina lurrera erori eta babarrunetik landare erraldoia sortu zen. Hainbeste eta hainbeste hazi zen, zeruraino iritsi zen. Bi amonatxoak babarrun-landarean gora hasi zirenean, Filipa erori eta hamaika zatitan puskatu zen. Zorionez, Anteak batu zituen Filiparen zatiak eta, maitasunez, bihotzeko laguna biziberritu zuen.




AMETSEK BI AMA DITU

EGILEA: OPHÉLIE TEXIER
 ILUSTRATZAILEA:
 OPHÉLIE TEXIER
 ARGITALETXEA:
 TTARTTALO
 GAIA: FAMILIA EREDU
 EZBERDINAK

LABURPENA:

Bilduma honek gure gizartean dauden familia eredu ezberdinei buruzko istorio gozoak bezain argiak biltzen ditu modu errazean eta naturaltasunez: adoptatutako haurren familiak ("Eki adoptatua da"), gurasoak banandu ondoren berriz osatutakoak ("Izarrek bi familia ditu"), guraso homosexual eta lesbianek osatutakoak ("Ametsek bi ama ditu") eta familia tradizionalak ("Lorek ahizpa txiki bat du")



EKI ADOPTATUA DA

EGILEA: OPHÉLIE TEXIER
 ILUSTRATZAILEA:
 OPHÉLIE TEXIER
 ARGITALETXEA:
 TTARTTALO
 GAIA: FAMILIA EREDU
 EZBERDINAK

LABURPENA:

Bilduma honek gure gizartean dauden familia eredu ezberdinei buruzko istorio gozoak bezain argiak biltzen ditu modu errazean eta naturaltasunez: adoptatutako haurren familiak ("Eki adoptatua da"), gurasoak banandu ondoren berriz osatutakoak ("Izarrek bi familia ditu"), guraso homosexual eta lesbianek osatutakoak ("Ametsek bi ama ditu") eta familia tradizionalak ("Lorek ahizpa txiki bat du").



IZARREK BI FAMILIA DITU

EGILEA: OPHÉLIE TEXIER
 ILUSTRATZAILEA:
 OPHÉLIE TEXIER
 ARGITALETXEA:
 TTARTTALO
 GAIA: FAMILIA EREDU
 EZBERDINAK

LABURPENA:

Bilduma honek gure gizartean dauden familia eredu ezberdinei buruzko istorio gozoak bezain argiak biltzen ditu modu errazean eta naturaltasunez: adoptatutako haurren familiak ("Eki adoptatua da"), gurasoak banandu ondoren berriz osatutakoak ("Izarrek bi familia ditu"), guraso homosexual eta lesbianek osatutakoak ("Ametsek bi ama ditu") eta familia tradizionalak ("Lorek ahizpa txiki bat du").



MARIZIPRIZTINEK EZ DU ZORIONEKO GALEPERNIK NAHI

EGILEA:
 NUNILA LOPEZ SALAMERO
 ILUSTRATZAILEA:
 MYRIAM CAMEROS
 SIERRA
 ARGITALETXEA:
 TXALAPARTA
 GAIA: ERREFERENTE BE-
 RRIAK BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Moderno, errealista, dibertigarria eta bihotz-altxagarria duzu honako ipuin hau. Bizitza txikitik kontatutako eta sinetsi zituzten ipuinetatik urrun dagoela konturatu diren eta konturatzen ari diren hamaika emakumeen istorioa da Mari Zipritinena. Testuen ironia eta irudien indar eta adierazkortasuna emakumea eta gizarte-arrakasta lotzen dituzten este-reotipoak hankaz gora jartzeko tresna ezin hobe dira.



PRINTZESEK ERE PUZKER EGITEN DUTE

EGILEA: ILAN BRENMAN
 ILUSTRATZAILEA:
 IONIT ZILBERMAN
 ARGITALETXEA: ALGAR
 GAIA: ERREFERENTE
 BERRIAK
 BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Lauraren aitak printzesen liburu sekretua ireki, eta inork ez zekien zerbait kontatu zion alabari... Jakin ezazu jendeak ezagutzen ez duen sekretu horren berri.




EMOZIOTEGIA

EGILEA:
CRISTINA NÚÑEZ PEREIRA
ILUSTRATZAILEA:
HAMAIKA EGILE
EZBERDIN
ARGITALETXEA:
PALABRAS ALADAS
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Txorien hegalek lumak dituzte. Pertsonen hegalek hitzak. Baina hitz guztiek ez dizute laguntzen gora egiten. Nola sentitzen zaren argiro esaten duten hitzek soilik areagotzen dituzte egan egiteko aukerak. Emozioren hiztegia Emoziotegia, baliagarria izango zaizu hegalak oso modu berezi batez astintzeko...eta ez duzu nahi izango astintzeari utzi.



TANGO IRITSITA HIRU DIRA

EGILEA:
JUSTIN RICHARDSON
eta PETER PARNELL
ILUSTRATZAILEA:
HENRY COLE
ARGITALETXEA: PAMIELA
GAIA: FAMILIA EREDU
EZBERDINAK

LABURPENA:

New York-eko Central Park-eko zooko pinguino papozuri bikote berezi baten egiazko historia da; Rob Gramzay-k haien kabian arrautza bat jarri- kume bat izateko aukera eman zien, harri bat alferrik txitatzen ari zirela ohartu eta gero. Horrela jaio zen Tango, bi aita izan zituen lehen pinguinoa




KILI-KILIAK

EGILEA:
ALBA BARBÉ i SERRA
eta SARA CARRO IBARRA
ILUSTRATZAILEA:
NÚRIA FORTUNY
HERRERO
ARGITALETXEA:
BELLATERRA
GAIA: EMOZIOAK

LABURPENA:

Haurtxoak garenetik, sexualitateak gure bizitzaren aro ezberdinetan zehar laguntzen digu. Gure buruari buruz ikasteko iturria da, eta baita esperientzia baliogarriez beteriko arloa ere. Askotan gure txikiekin euren sexualitatea, ametsak eta desirai buruz hitz egitea zaila egiten bazaigu ere, garapen osasuntsu eta integrala izan dezaten balio du. Garrantzitsua da helduek gorputza libreki aztertu eta berarekin jolasteko sustatzea, sexualitatearen inguruko ezagupenak zabalduz.



GERRAK EZ DU IZENIK

EGILEA: LEIRE BILBAO
ILUSTRATZAILEA:
MAITE MUTURBERRIA
ARGITALETXEA: PAMIELA
GAIA: LASAITASUNA ETA
ZAINTZA

LABURPENA:

Egileek ederki uztartu dituzte hitza eta irudia, sentimenak eta gertaerak, errealitatea eta fantasia, gerra ororen ezaugarriak agerira ateraez: gosea, beldurra, tristura... Eta argazki errealez eta irudi marraztuez osaturiko planoet baliatu dira, hitzari arnasa eman eta kontrapuntu egiteko, bizi iraupenerako dei ozen bat osatuz, armoniaz beteriko album ilustratu honetan.



HANKAZ GORA DU AMAK MUNDUA

EGILEA: DANI MARTIRENA
ILUSTRATZAILEA:
ANA IBAÑEZ
ARGITALETXEA:
LIBURU ILETSUAK
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Etxe hustutzeen inguruko ipuina da.



BONOBO BETAURREKO DUNEN EGIAZKO HISTORIA

EGILEA: ADELA TURIN
ILUSTRATZAILEA:
NELLA BOSNIA
ARGITALETXEA: PAMIELA
GAIA: BERDINTASUNA

LABURPENA:

Orain dela urte asko eta asko, aspaldi handian, hainbat bonobo oihanean bizi ziren, mangladi batean. Egun guztia fruitu eta baiak, intxaur eta haziak, sustrai eta kimu berriak jaten ematen zuten, eta, bonobo emeak lan eta lan aritzen ziren janaria biltzen, helduentzat eta umeentzat.




NONDIK DATOZ UMEAK?

EGILEA:
KATIE DAYNES
ILUSTRATZAILEA:
CHISTINE PYM
ARGITALETXEA:
TTARTTALO
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

Nondik datoz umeak? Nola sortzen dira? Zer behar dute? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko leihatiladun liburu honetan.



JAZZ NAIZ

EGILEA: JESSICA HERTHEL
eta JAZZ JENNINGS
ILUSTRATZAILEA:
SHELAGH McNICHOLAS
ARGITALETXEA:
BELLATERRA
GAIA: TRANSEXUALITATEA

LABURPENA:

Jazz-ek beti jakin zuen ez zela bere adineko neska-mutilak bezalakoa. Oso gaztetatik sentimendu indartsu batez jabetu zen, neska izateaz, alegia, eta bere ingurukoek onarrez borrokatu zen. Bi urteko ume txikia zenetik, Jazz-ek bazekien neska zela, jaiotzean mutiltzat hartu bazuten ere. Arrosa kolorea eta sirenaz mozzorrotzea gustukoa zuen, eta mutilen arropa soinean ez zebilen eroso. Horren aurrean, familiak ez zekien nola jokatu, Jazz transexuala zela ulertu eta laguntzea erabaki zuten arte. Jazz-en istorioa egiazko esperientzia da. Ipuin honetan, berak modu errazean kontatzen ditu bere bizipenak, eta bereziki ipuinak gustuko dituztenei, familiei eta irakasleei zuzentzen zaie.



KEZKAMUXELAK

EGILEA:
ANTHONY BROWNE
ILUSTRATZAILEA:
ANTHONY BROWNE
ARGITALETXEA: PAMIELA
GAIA: LASAITASUNA ETA
ZAIINTZA

LABURPENA:

Kapelak, zapatak, hodeiak, euria, txori handiak... Ibai beldurrek larritua bizi da, baina haren amonak badu konponbidea. Leku urrunetako panpina batzuk dira gakoa



GORA KOLORETAKO AZAZKALAK!

EGILEA:
EGILE UGARI (VV.AA.)
ILUSTRATZAILEA:
GUSTI
ARGITALETXEA:
EDICIONES MENSAJERO
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Juani azazkalak pintatzea gustatzen zitzaien, eta eskolan hari barre egin ziotenean, aitak lagundu eta bera pintatzea erabaki zuen.



1, 2, 3... IPURDI!

EGILEA:
ANNIKA LEONE
ILUSTRATZAILEA:
BETTINA JOHANSSON
ARGITALETXEA:
GATO SUECO
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

Azkenean zapatua!
Milak igerileku handira egingo du jauzi, ausartuko al da?
Aldageletan ikusteko asko dago: gorputz biluzi berdin eta ezberdin ugari.



KATTA URTEBETETZEA

EGILEA:
MIREN AGUR MEABE
ILUSTRATZAILEA:
LOTURA FILMS
ARGITALETXEA: ELKAR
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Kattak gonbita jaso du Bertolen festara joateko. Opari polit bat prestatu dio. Bidean lagun batzuk batu ditu, baina ekaitza dute gainean....



BESTIARIO SEKRETUA - NESKA GAIZTOAK

EGILEA:
MYRIAM CAMEROS SIERRA
ILUSTRATZAILEA:
GABRIELA LARRALDE
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: EMAKUMEAK
HISTORIAN

LABURPENA:

Munduko neskak guztiak ONAK dira, eta ESANEKOAK.
Esnatzen direnean, ohea egin, hortzak garbitu eta fruta jaten dute gosarian.
Neskak bat marruka goxoki bat nahi duelako? Bai zera!
Inoiz ez da halakorik ikusi!



ETXE HONETAN

EGILEA:
AINTZANE USANDIZAGA
eta GASTON
ILUSTRATZAILEA:
ASIER ITURRALDE
ARGITALETXEA:
PAMIELA
GAIA: LASAITASUNA ETA
ZAIINTZA

LABURPENA:

Etxean arauak jartzera ohituta dagoen aitaxi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz goiti paratzera datorren ilobaren arteko harremana da gaia. Edonori ezagunak egin ahal zaizkigun egoerak bizitasunez kontatu eta marraztu dituzte autoreek, umorea maisuki erabiliz eta irribarrea lehen minututik sorraraziz. Irakurleak erabaki dezala nork agintzen duen ETXE HONETAN.



AITAREKIN NAGOENEAN

EGILEA:
SOOSH
ILUSTRATZAILEA:
SOOSH
ARGITALETXEA:
EDITORIAL MINIS
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAIINTZA

LABURPENA:

Gozotasunetik, samurtasunetik eta maitasunetik deskribatzen dute aitaren eta alabaren arteko lotura. Aita handia, indartsua eta babeslea da, guraso guztiak bezala gure txikientzat.



BAZEN BITAN EDURNE ZURI

EGILEA:
BELÉN GAUDES
eta PABLO MACÍAS
ILUSTRATZAILEA:
NACHO DE MARCOS
ARGITALETXEA:
CUATRO TUERCAS
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Bazen behin Blancanieves izeneko gazte bat. Edurnezuri hau, oraingoan, ez da erresumako ederrena izango, ez du musu batek erreskaturiko, ezta printze urdin baten besoetan ere.

Bi aldiz, betiko ipuinetarako bigarren aukera da. Sexismorik gabe, indarkeriarik eta desberdintasunik gabe.



DANIELA PIRATA

EGILEA:
SUSANA ISERN
ILUSTRATZAILEA:
GOMEZ
ARGITALETXEA:
EDICIONES MENSAJERO
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Kaiman Beltzako piratek ez dute euren itsasontzian neskarik nahi. Zer gertatuko ote da Daniela etortzean?



MARI TXIKI SUPERMERKATUAN

EGILEA:
PELLO AÑORGA
ILUSTRATZAILEA:
JOKIN MITXELENA
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: FAMILIA
EREDU EZBERDINAK

LABURPENA:

Erosketak egitera joan dira: aita Jontxo, aitaxo Montxo eta Mari Txiki. Supermerkatuan sartu eta a zer festa! Haiek oihuak!



AMAREN INTXAURRAK

EGILEA: JULIO SOTO
ILUSTRATZAILEA:
MAIDER MUTUBERRIA
ARGITALETXEA:
KATXIPORRETA
GAIA: GORPUTZA
(HERIOTZA)

LABURPENA:

Heriotza gaia du ardatz AMAREN INTXAURRAK proiektuak. Haurrek eta familiek, eta orohar, (hezkuntza) komunikateak gaia lantzeko euskarri bat gehiago izan nahi du sudurgorrien azken lanak. Naturak heriotza ulertzen lagundu die Pirritx, Porrotx eta Marimototsi: bizitzaren parte da heriotza ere.



LEOTOLDE

EGILEA:
OLGA DE DIOS RUIZ
ILUSTRATZAILEA:
OLGA DE DIOS
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Leotolde fantasiako abentura bat da, zure sormenaren ahalmenari esker iritsiko dena amaierara. Adiskidetasunetik abiatzen den bidaia honetan, ikusi ahal izango dugu esperientziek hozten laguntzen digutela. Utziozu zure jakin-minari atek zabaltzen.



KATTA. UDALEKUAK

EGILEA:
MIREN AGUR MEABE
ILUSTRATZAILEA:
LOTURA FILMS
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Katta eta kuadrilla udalekuetara heldu dira. Jende arrotza topatu dute han: abereak eta oihane-ko animaliak. Nola konponduko ote dira?



BAZEN BITAN LOTI EDERRA

EGILEA:
BELÉN GAUDES
eta PABLO MACÍAS
ILUSTRATZAILEA:
NACHO DE MARCOS
ARGITALETXEA:
CUATRO TUERCAS
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Bi aldiz Loti Ederra deitzen zioten neska gazte bat. Baina, oraingoan, ez da ez hain ederra ez hain lotsatia izango, herensugeen aurka borrokatuko da eta berak erreskatatuko du printzea.




BASTET. IBAIERTZEKO BIZTANLEAK

EGILEA:
PEIO LOPEZ-ITURRI
ILUSTRATZAILEA: IRATI
MERINO PETRALANDA
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Bidegabekerien aurrean, guztiona dena denon artean zaindu eta babestu behar dugulako.





**LILITH-EN
ALTXORRA**

EGILEA:
CARLA TREPAT
CASANOVAS eta
ANNA SALVIA RIBERA
ILUSTRATZAILEA:
CARLA TREPAT
CASANOVAS
ARGIALETXEA:
CARLA TREPAT
CASANOVAS
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

Sexualitatea, plazerra eta hileroko zikloari buruzko ipuina. Gure gorputz femeninoaren barnean dagoen edertasunaren eta aberastasunaren aldarrikapen bat da. Sentsibilitatearekin, maitasunarekin eta poztasunarekin idatzia.



NI NEREA NAIZ

EGILEA: NEREA GARCÍA
ILUSTRATZAILEA:
ÁNGEL M.ª REMIREZ
DE GANUZA
ARGIALETXEA:
BELLATERA
GAIA:
TRANSEXUALITATEA

LABURPENA:

Esku artean duzun liburuak haur-transexualitatearen gaia jorratzen du, familia jakin baten ikuspuntutik. Benetako familia da, bere historia konpartitu eta ipuin moldean «kontatu» nahi izan diguna. Liburu honetan Nerearen istorioa kontatzen da, zeinak txiki-txikitatik argi adierazi zuen neska sentitzen zela, nahiz zakila izan, nahiz inguruko guztiek mutil gisa tratatu.



HONA GU HEMEN

EGILEA: OLIVER JEFFERS
ILUSTRATZAILEA:
OLIVER JEFFERS
ARGIALETXEA:
TXALAPARTA
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAINTZA

LABURPENA:

«Kaixo eta ongi etorri planeta honetara. Lurra esaten diogu. Globo handi bat da, espazioan zintzilik, eta hor bizi gara gu». Halaxe hasten da Oliver Jeffers idazle eta ilustratzailearen maisulan hau, mundu honetara iritsi berriak jakin beharreko guztia azaldu nahian.



**PIPI
ITSASORAKO ASMOTAN**

EGILEA: LINDGREN ASTRID
ILUSTRATZAILEA:
VANG NYMAN INGRID
ARGIALETXEA: ELKAR
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Pippi, neskatala alai eta bihurria, Mozolomendi izeneko etxea batean bizi da bere zaldiarekin eta tximu batekin. Ez da eskolara joaten. Nahi duena egiten du. Bere aita kanibalen erregea dela esaten die lagunei. Bere abentura ugari ageri dira liburu honetan: hirian erosketak egiten, lagunekin eta hauen andereñoarekin mendian, antzerkia ikusten, azokan, aintzira bateko uharterean... Dabilen leku guztietan gauza harrigarriak eta barregarriak egiten ditu. Pippiri aita etorri zaio Mozolomendira eta bera bizi den uhartera eraman nahi du, han kanibalen printzesa izango dela esaten dio. Baina joango ote da Pippi Kurrekurredu izeneko uhartera hainbeste maite dituen bere lagunak utzita?



MOMO

EGILEA: MICHAEL ENDE
ARGIALETXEA: BEGIKO
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Momo izeneko neskatoak dohain miresgarri bat du: badaki besteei entzuten. Gainera, jendeari lagundu nahi dio, haien bizitza samurragoa izan dadin. Batik bat, gizon grisek erabakitzen dutenean beretzat hartuko dutela pertsonak duten gauza preziatuena: denbora.



UTIKAN, BIRUSA!

EGILEA:
JAKA GARCÍA ANA
ILUSTRATZAILEA:
MITXELENA UNSAIN IOSU
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAINZA

LABURPENA:

Koronabirusak jo gaituen garai honetan girota dago istorio hau. Lehenengo ipuinak "Nahigabe-ko oporrak" orain hilabeteko itxialdiaz hitz egiten digu eta bigarrenak berriz, "Lagunak beti lagun", uda ondorengo denbora honetan dago girota. Noa eta Lea ahizpek, garai berezi honetan ere, beti erakutsi ohi duten laguntasuna, bizi-poza eta bihurrikerietarako joera helaraziko diete hurrei ipuin honetan.




BAT! ZIBERBULLYINGAREN AURKAKO TALDEA

EGILEA:
HALLATT ALEX
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: GATAZKAK

LABURPENA:

BAT taldeak bullyingari aurre egitea, bullyinga jasaten ari direnei laguntzea eta ondo pasatzea dute helburu. Beren istorioak ezagutzera emateko bi liburu eman ditugu argitara: BAT, Bullying-aren Aurkako Taldea eta BAT ziberbullying-aren aurka Alex Hallatt Zeelanda Berriko idazle eta ilustratzaileak sortuak dira. Hirugarren istorioa ere prestatzen ari gara: Partida handia.




MARTIN

EGILEA:
AGIRRE GARMENDIA ALAINE
ILUSTRATZAILEA:
GURRUTXAGA MAITE
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Martin desberdina da. Hala esaten dute denek. Gauzak egiteko bere modua daukalako, edo gehiago kostatzen zaiolako. Baina kontalariak badaki Martin ez dela arraroa, normala dela eta maitagarria? nahiz eta berezi samarra izan. Desberdintasunari, integrazioari eta bazterkeriari buruzko album zoragarri honek Espainiako OEPLI erakundearen Lazarillo saria jaso zuen album ilustratuen atalean.



MARIE CURIE

EGILEA:
BAYARRI DOLZ JORDI
ILUSTRATZAILEA:
JORDI BAYARRI
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: EMAKUMEAK
HISTORIAN

LABURPENA:

Marie Sklodowska-Curiek bi elementu berri aurkitu zituen, polonioa eta radioa, eta, bi Nobel sari eta beste hainbat irabazteaz gain, beti ikusi zuen oso argi zeinen garrantzitsua den ikerkuntza. Mundua ezagutzeko eta gizadiari laguntzeko tresna gisa ulertzen zuen zientzia, eta ahalegin handia egin zuen lankidetzaren intelektuala nazioen arteko komunikazio-zubi izan zedin. Horri guztiari esker, historiako zientzialaririk garrantzitsuenetako bat baino askoz ere gehiago da Marie Curie.



GU GARA MARIMATRAKAK

EGILEA:
JAKA GARCÍA ANA
ILUSTRATZAILEA:
MITXELENA UNSAIN IOSU
ARGITALETXEA:
ELKAR
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Gu gara marimatrakak, iji eta aja, barre eta zalaparta, neska pare aparta.



ADA LOVELACE - ZIENTZILARIAK

EGILEA:
JORDI BAYARRI
ILUSTRATZAILEA:
JORDI BAYARRI
DANI SEIJAS
ARGITALETXEA:
IKASELKER
GAIA: EMAKUMEAK
HISTORIAN

LABURPENA:

Ada umetatik izan zen jakin-min handikoa, pentsa, txiki-txikitan hegan egiteko makinak ere asmatzen zituen eta. Bere matematika ezagutzei eta adimen sortzailari esker algoritmo bat idatzi zuen, makina analitiko batek pertsonen inolako partehartzerik gabe kalkuluak egin zitzaizkien. Askorentzat historiako lehen programa informatikoa izan zen formula matematikoa, hain zuzen ere.



ANEKDOTAK

EGILEA:
RUIZ RUBEN
ILUSTRATZAILEA:
EIDER EIBAR ZUGAZABEITIA
ARGITALETXEA:
PAMIELA
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Ane zortzi urteko neska bat da. Atzo, hitz berri bat entzun zion atso zahar bati Anek: anekdota. Aneri asko gustatu zitzaion entzundako hitza, akaso, esaten den aldiro bere izena esaten delako. Gaur, jakin du zer esan nahi duen hitz horrek. Eta jakin du hitz hori erabili beharrean pasadizo esan dezakeela. Baina Anek anekdota esatea nahiago du. Eta erabaki du berari gertatutakoak idatzi egingo dituela.



ETXEAN BARRENA

EGILEA:
PUERTA LEISSE GUSTAVO
ILUSTRATZAILEA:
ODRIOZOLA ELENA
ARGITALETXEA:
DENONARTEAN
GAIA: LASAITASUNA
ETA ZAINZA

LABURPENA:

Zergatik sentitzen gara irainduak norbaitek gutaz zer-bait esatean, eta beste norbaitek esatean ez? Zer da mingarriagoa: errua ala lotsa? Nostalgiaekin, zergatik sentitzen dugu mina eta aldi berean plazer arin bat? Ba ote zentzurik inbidia onaz mintzatzeak? Zer behar da norbaitekin enpatia izateko? Plazerari ihes egitea ez ote da plazera sentitzeko modu gaixobera bat? Bikotekideak, anai-arrebak, gurasoak... gauza berataz ari ote dira maitasunaz ari direnean?

- LEHEN URRATSAK
- AURRE IRAKURLEAK
- IRAKURLEAK
- JAKINTZAK
- GAZTEAK



EN BARCO POR EL RÍO

EGILEA: DORO GÖBEL
ILUSTRATZAILEA:
PETER KNORR
ARGITALETXEA: LOGUEZ
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

El MS Luise zarpa por la mañana temprano: la capitana Celia y su tripulación saludan a los numerosos pasajeros, contentos de pasar un día de excursión por el agua. Sube a bordo y vive las emocionantes aventuras por el río entre el campo y la ciudad. ¡Soltad amarras!



ANE MONA Y HULDA

EGILEA:
JENNY JORDAHL
ILUSTRATZAILEA:
JENNY JORDAHL
ARGITALETXEA:
ERRATA NATURAE
GAIA: FAMILIA
EREDU EZBERDINAK

LABURPENA:

En lo más azul del mar, viven las sirenas. Y en lo más verde del bosque, viven las huldras. La sirena más pequeña con los sueños más grandes se llamaba Ane Mona. La huldra con el espíritu más aventurero se llamaba Hulda. Ane Mona se moría de ganas de ver los misteriosos mundos que se encontraban más allá de los confines del mar. Mientras que Hulda, todas las tardes, trepaba a lo alto de un árbol para tratar de atisbar las enigmáticas profundidades azuladas que rodean las lindes del bosque.



ANTI ESPEJITO

EGILEA:
NADIA FINK
ILUSTRATZAILEA:
PITU SAA
ARGITALETXEA:
AKAL
GAIA: ERREFERENTE
BERRIAK
BERDINTASUNEAN

LABURPENA:

Espejito, espejito ¿quién es la más bella del lugar? Por eso nuestra princesa del espejo se transforma en nuestra heroína Frida Kahlo, que usó su propio rostro en ese cristal para crear muchos mundos a través de la pintura y del arte. Frida usó su "anti-espejito" para mirarse como más quería, ¿por qué no usar uno nosotras?



GLORIA

EGILEA: MARIA ISABEL
SÁNCHEZ VERGARA
ILUSTRATZAILEA:
CINTA ARRIBAS
ARGITALETXEA:
ALBA EDITORIAL
GAIA: EMAKUMEAK
HISTORIAN

LABURPENA:

Escritos con rimas sencillas, esta colección de cuentos es ideal para que los más pequeños descubran a las grandes mujeres de la historia. Gloria Fuertes es una de las grandes poetas españolas del siglo XX y un referente de la literatura infantil.



LA BARBA DE MARITA

EGILEA:
ALICIA ESCRIBANO
AZNAR
ILUSTRATZAILEA:
PATRI DE BLAS
ARGITALETXEA:
CUENTO Y TU
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

Esta es la historia de la barba más famosa que jamás haya existido, la barba de Marita. Una desaparición misteriosa y el empeño de Marita por recuperar su bien más preciado, le harán descubrir los remedios y consejos más disparatados que os podáis imaginar. ¿Serán efectivos? ¿Conseguirá Marita volver a lucir su lustrosa barba?



LA PRINCESA JORGE

EGILEA:
ANGELA MESA ESTAÑ
ILUSTRATZAILEA:
MERCHE MORENO
ARGITALETXEA:
BADIBI-BU BOOKS
GAIA:
TRANSEXUALITATEA

LABURPENA:

Jorge es un niño muy especial que vive millones de aventuras con su amiga Lina. Lo que más le gusta son las princesas, pero... ¿es posible que para los demás las princesas sólo sean cosa de chicas?



PEQUEÑA Y GRANDE ZAHA HADID

EGILEA:
ASUN AMAR
ILUSTRATZAILEA:
MARÍA ISABEL SÁNCHEZ
VERGARA
ARGITALETXEA:
ALBA EDITORIAL
GAIA: EMAKUMEAK
HISTORIAN

LABURPENA:

Zaha Hadid fue una arquitecta anglo-iraquí. Fue reconocida internacionalmente con trabajos que desafiaban la forma de los edificios convencionales. Construyó lo imposible, como el Centro Acuático de Londres, la ópera de Guangzhou o el Centro Cultural Heydar Aliyev en Bakú, Azebaiyán. Ganadora de múltiples premios y reconocimientos, incluido el Premio Pritzker, se la recuerda hoy como una apasionada feminista y una arquitecta pionera.



CARLOTA ES FELIZ

EGILEA: GUILLERMO CABALLERO PÉREZ
ILUSTRATZAILEA: GUILLERMO CABALLERO
ARGITALETXEA: EDITORIAL CABALLERA
GAIA: FAMILIA ETA EREDU EZBERDINAK

LABURPENA:

Carlota en una niña de 5 años, cuyos padres están separados. Ello no impide que pueda disfrutar tanto de su madre como de su padre y del resto de amigos del "cole", de su perro "Bandido" y de las diferentes cosas que aprenderá con ellos y de ellos. Todas las historias cuentan circunstancias cotidianas en la vida de un niño de padres separados, durante la escuela, en vacaciones estivales, la Navidad, las visitas al médico, aficiones, actividades varias y relacionadas con el mundo del aprendizaje y el desarrollo de los pequeños.



CUÉNTAMELO TODO

EGILEA: KATHARINA VAN DER GATHEN
ILUSTRATZAILEA: ANKE KUHL
ARGITALETXEA: TAKATUKA
GAIA: SEXUALITATEA

LABURPENA:

Para que los jóvenes actúen de manera responsable con su cuerpo y en temas relacionados con la sexualidad y el amor es importante que dispongan de la información que necesitan ya en edades tempranas. ¿Pero qué es lo que debe saber un niño o niña de primaria? Tanto como ellos mismos quieran, dicen los expertos. ¿Y qué quieren saber los niños y niñas? Eso es lo que se puede ver por las preguntas que realizan y que se recogen en Cuéntame todo. ¿Puede tener hijos una abuela?




MUJERES EN EL DEPORTE

EGILEA: RACHEL IGNOTOFSKY
ILUSTRATZAILEA: RACHEL IGNOTOFSKY
ARGITALETXEA: NORDICA LIBROS
GAIA: EMAKUMEAN HISTORIAN

LABURPENA:

Mujeres en el deporte es un libro inspirador que ilustra los logros e historias de cincuenta destacadas deportistas desde la década de 1800 hasta la actualidad, incluyendo mujeres que han sido pioneras en su deporte, olímpicas y batidoras de récords en más de cuarenta disciplinas deportivas. Entre las deportistas que aparecen en este libro hay figuras muy conocidas, como la tenista Serena Williams y la gimnasta Simone Biles, y otras campeonas menos conocidas, como Toni Stone, la primera mujer que jugó a béisbol en la liga profesional masculina, y la pionera del skateboarding, Patti McGee. El libro también contiene infografías sobre temas útiles para deportistas, como la anatomía muscular, una cronología de la participación de las mujeres en el deporte, estadísticas salariales y de la atención mediática que reciben, y otra sobre equipos femeninos influyentes. Mujeres en el deporte celebra el éxito de estas mujeres fuertes, audaces y valientes que allanaron el camino para las deportistas de hoy.



MUJERES DE CIENCIA

EGILEA: RACHEL IGNOTOFSKY
ILUSTRATZAILEA: RACHEL IGNOTOFSKY
ARGITALETXEA: NORDICA LIBROS
GAIA: EMAKUMEAK HISTORIAN

LABURPENA:

Este fascinante libro pone de relieve las contribuciones de cincuenta mujeres notables a los campos de la ciencia, la tecnología, la ingeniería y las matemáticas, desde el mundo antiguo hasta nuestros días. Entre las pioneras incluidas en esta obra, están figuras conocidas, como Marie Curie y Jane Goodall, y otras no tan conocidas, como Rachel Carson, que ya a comienzos del siglo xx advertía sobre los efectos nocivos de los pesticidas en el medio ambiente y de la creciente contaminación. Esta colección de historias apasionantes también contiene infografías sobre temas relevantes como equipos de laboratorio, tasas de mujeres que trabajan en campos relativos a la ciencia y un glosario científico ilustrado. Mujeres de ciencia celebra los logros de las intrépidas mujeres que han allanado el camino para las próximas generaciones de mujeres ingenieras, biólogas, matemáticas, médicas, astronautas, físicas...



TENGO UNA MAMÁ Y PUNTO

EGILEA: FRANCESCA PARDI
ILUSTRATZAILEA: URSULA BUCHER
ARGITALETXEA: PICARONA
GAIA: FAMILIA EREDU EZBERDINAK

LABURPENA:

En casa de Camila son tres: su madre, su perro Jimmy y ella. Para Camila su familia es la mejor del mundo, pero un día, en el cole, la sustituta de la maestra le pide que haga una tarea difícil: dibujar al papá que le gustaría tener... Un libro que nos habla de los niños con un solo progenitor para mostrar que cada familia es única...



LA REGLA MOLA (SI SABES CÓMO FUNCIONA)

EGILEA: ANNA SALVIA RIBERA
ILUSTRATZAILEA: CRISTINA TORRÓN VILLALTA
ARGITALETXEA: MONTENA
GAIA: GORPUTZA

LABURPENA:

¿Que es la menstruación?, ¿cómo te transforma el ciclo menstrual?, ¿la regla duele?, ¿que opciones tienes para no mancharte?, ¿la primera regla llega de repente? Todo lo que siempre has querido saber sobre la menstruación (y nunca te has atrevido a preguntar) explicado de forma directa y divertida para vivir estos cambios con confianza y bienestar. Porque tener la regla mola, pero hay que saber cómo funciona.



HIPATIA. LA GRAN MAESTRA DE ALEJANDRÍA

EGILEA: VÍCTOR GARCÍA TUR
ILUSTRATZAILEA: MAR AZABAL
ARGITALETXEA: VEGUETA EDICIONES
GAIA: EMAKUMEAK HISTORIAN

LABURPENA:

En una época en la que las mujeres no tenían acceso al conocimiento, Hipatia de Alejandría consiguió abrirse camino en la ciencia y llegar a ser respetada por su sabiduría. Considerada por muchos la primera mujer científica de la historia, fue además una extraordinaria maestra, filósofa e inventora. Sus logros son una fuente de inspiración para todos los que amamos el saber.



AITOR TIENE DOS MAMAS

EGILEA: MARÍA JOSÉ MENDIETA
ILUSTRATZAILEA: MABEL PIÉROLA
ARGITALETXEA: BELLATERRA
GAIA: FAMILIA ETA EREDU EZBERINAK

LABURPENA:

Han comenzado a salir a la luz pública algunos casos de acoso escolar. La violencia verbal o física, el rechazo y la discriminación no son ninguna novedad en las aulas ni en los patios de las escuelas, pero ha sido necesaria la aparición de noticias sobre suicidios y denuncias de madres y padres, para que aquello que antes se consideraba «normal» se vea ahora como un problema que hay que resolver. Aitor, el protagonista del cuento, es víctima de esa violencia escolar, debido a que su familia es diferente de las demás.

PAREAN
Elkartea


katakarak
liburuak



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa